

PROBA ESPEZIFIKOA

201' ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

FILOSOFIAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

HISTORIA DELA FILOSOFÍA

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete

Hautatu eta erantzun zortzi ariketa hauetako lauri (2,5 puntu galdera bakoitzeko)

1. Esan ea egia ala gezurra den baieztapen hauek Aristotelesek egin zituela:
 - a) Ezagutzea gogoratzea da.
 - b) Badira sortzetiko ideiak.
 - c) Jaiotzean, gure burua hutsik dago. Zentzumenek ematen diguten informazioaren bidez eskuratzen dugu ezagutza.
 - d) Ezagutza konkretutik abstraktura doan prozesu bat da.
2. Erantzun San Agustinen pentsamenduari lotutako oinarrizko galdera hauei:
 - a) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?
 - b) Non bilatu behar da egia?
3. Definitu Gilen Ockhamgoaren filosofiaren kontzeptu giltzarri hauek:
 - a) Nominalismoa
 - b) Ekonomia-printzipioa
4. Identifika itzazu arrazionalismoari dagozkion ezaugarriak eta enpirismoari dagozkionak, eta justifika ezazu erantzuna:
 - a) Gure ideia guztiak geureganatu egin ditugu.
 - b) Baliozko jakintza-iturri bakarra arrazoia da.
 - c) Sortzetiko ideiak ditugula baieztatzen du.
 - d) Gure jakintza osoaren iturria esperientzia da.
 - e) Ez dago sortzetiko ideiarik: adimenean ez dago ezer aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik.
5. Azaldu "postulatu" terminoaren esanahia, eta banan-banan aipatu Kant-ek adierazten duen arrazoi praktikoaren oinarrizko postulatuak.
6. Aipatu eta labur azaldu Industria Iraultzaren oinarriak eta ezaugarriak, eta zer eragin izan zuen Marxen filosofian.
7. Azaldu Nietzscheren *Honela mintzatu zen Zaratustra* obraren alderdirik adierazgarrienak, eta azaldu obran Jainkoaren heriotzari lotuta agertzen diren sinbolo hauek:
 - a) Gamelua
 - b) Lehoia
 - c) Haurra
8. Adierazi, eta iruzkindu labur, zein diren existentzialismoan eragin erabakigarria izan zuten XX. mendearen lehen erdiko indarkeriazko gertaerak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

FILOSOFIAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

**EBAZPENA: FILOSOFIAREN HISTORIA
(2013ko maiatza)**

1.

- a) Ezagutzea gogoratzea da. Gezurra. Tesi edo baieztapen hori Platoni dagokio.
- b) Badira sortzetiko ideiak. Gezurra. Baieztapen hori ere Platoni dagokio.
- c) Jaiotzean, gure burua hutsik dago. Zentzumenek ematen diguten informazioaren bidez eskuratzen dugu ezagutza. Egia. Aristotelesek ukatu egiten du sortzetiko ideien existentzia. Gure ezagutza paper zuri bat da, ezer idatzia ez duena. Ideiak idatziz joaten dira zentzumenek ematen dituzten datuetatik abiatuta. Jarrera horrek, berriro ere, errealismo aristotelikoa berresten du, zeina argi eta garbi bereizten baita idealismo platonikotik.
- d) Ezagutza konkreturik abstraktura doan prozesu bat da. Egia. Zentzumenen bidez, objektu konkretua atzematen dut, baina ez da nahikoa. Aristotelesek, bere ezagutzaren teorian, azaltzen du nola eratzen diren ideia unibertsal eta abstraktuak gauza konkretu eta partikularretatik. Beraz, ezagutza, Aristotelesen arabera, konkretutik abiatzen da, eta abstraktura garamatza.

2.

- a) Nola frogatzen du San Agustinek egiaren existentzia?: Akademikoekin izandako eztabaidan gizakiak beti erratzen duela argudiatuz frogatzen du egiaren existentzia, haiek, eszeptikoak baitziren, ukatu egiten baitzuten existentzia hori. Baina, San Agustinek argudiatzen zuen moduan: "Erratzen badut, existitzen naiz"; "Si fallor, sum". Erratzearen egitatean bertan aurkitzen du San Agustinek existentziaren beraren egia. "Si fallor, sum" horretan, "Cogito, ergo sum" ("Pentsatzen dut; beraz, banaiz") printzipio kartesiar ospetsuaren aurrekaria ikusi nahi izan du zenbaitek.
- b) Non bilatu behar da egia?: Egia barnean bilatu behar da: Ez da kanpora joan behar, baizik eta norberaren barnerantz itzuli. Haren filosofia barnekotasunerako gonbidapen bat da: egia gizaki bakoitzaren barnean bizi da. Geure barnean murgildu behar dugu, eta hantxe aurkituko dugu Egia, hau da, Jainkoa, zeina San Agustinek "nire intimitateko barnekoena" gisa definitzen baitu.

3.

- a) Nominalismoa. Latinezko "nomen"-etik dator: izena, terminoa. Unibertsalen auzian, hark aldeztu du unibertsalak ez direla ez kontzeptuak (kontzeptualismoa), ez objektuak (errealismoa), baizik eta antzekoak diren gauzei ematen zaizkien «izenak»; Ockhamgoak dio existitzen den oro singularra dela. Unibertsala ez da existitzen. Unibertsalak giza gogamenaren sorkuntzak baino ez dira, gauzen zeinuak dira, gauzak ordezkatzeko dituzten izenak dira.
- b) Ekonomia-printzipioa edo Ockhamgoaren labana. Esperientziara jotzeak aukera ematen du beharrezkoak ez diren kontzeptu abstraktuak ez erabiltzeko: adimen agentea, indibiduoazio-printzipioa, eta abar. "Gauzak ez dira beharrik gabe ugaritu behar". Printzipio horrekin, Ockhamgoak ezabatu egin nahi du nabaria ez den guztia. Hala, modu enpirikoan egiazta ez daitezkeen kontzeptuak ezabatzen ditu filosofia aristoteliko-tomistatik.



4.

- a) Gure ideia guztiak geureganatu egin ditugu. Enpirismoa. Ideiak esperientziaren emaitza dira.
- b) Baliozko jakintza-iturri bakarra arrazoia da. Arrazionalismoa. Esperientziak gauzak nolakoak diren erakusten digu, ez zer diren. Arrazoia baino ez da gai galdera horri erantzuteko.
- c) Sortzetiko ideiak ditugula baieztatzen du. Arrazionalismoa. Ideiek, esperientziaren mendekoak ez badira, sortzetikoak izan behar dute (funtsezkoek, behintzat).
- d) Gure jakintza osoaren iturria esperientzia da. Enpirismoa. Zentzumenak dira mundua hautemateko tresna bakarra.
- e) Ez dago sortzetiko ideiarik: adimenean ez dago ezer aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik. Enpirismoa. Aurrekotik ondorioztatzen da.

5.

Kantek matematikatik hartu zuen "postulatu" terminoa. Postulatu bat da proposizio bat begi-bistakoa ez dena eta frogatu ezin dena baina onartu beharrekoa; onartu ezean, ezinezkoa izango litzateke edozein baieztapen. Adibidez, Kanten iritziz ezinezkoa da askatasunaren existentzia frogatzea, baina onartu beste aukerarik ez dago, "eginbeharrak", zeina arrazoi praktikoaren "a prioria" baita, hala eskatzen duelako. Modu errazago batean esanda, eginbeharrak askatasunaren existentzia auresuposatzen edo postulatu du. "Ikasi egin behar duzu" esaten da, aukera duzulako ikasteko edo ez ikasteko; hau da, aske zara.

Errealitate horiek, begi-bistakoak ez direnak eta frogatu ezin direnak baina etikak edo moralak behartuta onartu behar direnak, postulatuak dira. Kantek hiru bereizi zituen:

1. Askatasuna. "Zuk eginbeharra duzu; beraz, aske zara. Eginbeharrak, azaldu berri den moduan, askatasunaren existentzia auresuposatzen du.
2. Arimaren hilezkortasuna. Borondateak, bere egintza moralean, bizi honetan lortu ezin den helburu bat du; beraz, baieztatu beharra dago badela beste bizi bat non hori lor baitaiteke. Puntu horretara iritsita, arimaren hilezkortasuna postulatu da aukera bakarra.
3. Munduan, izateak eta izan beharrak ez dute bat egiten; beharrezkoa da, horrenbestez, Jainkoa onartzea bi errealitate horiek bat egiten duten izakitzat.

Kantek, amaitzeko, Arrazoi Praktikoaren bidez altxatzen du Arrazoi Hutsaren bidez eraitsia zuen guztia. Unamunok, *Bizitzaren sentimendu tragikoan*, honela adierazi zuen: "Kantek buruarekin eraisten duena bihotzarekin altxatzen du". Teoriaren eta praktikaren arteko aurrez aurrekoa, geroago marxismoak sakondu zuena, jada zabalik gelditu zen.

6.

Eskulangintzatik industria-ekoizpena igarotzeko deritza Industria Iraultza. Hauek izan ziren, besteak beste, industriarako aldaketa ekarri zuten faktoreak:

- Liberalismoa: estatuaren politika ez esku-hartzailea du oinarri; mesede egin zion industrializazioari, ez baitzien oztoporik jarri burgesiaren ekimen partikularrei.



- Populazioaren hazkundera: heriotza-tasa txikiagotzearen ondorio zuzena izan zen; horren ondorioz, fabrikek funtzionatzeko behar zuten beste langile izan zuten. Hazkunde horri esker, langileak sobera ziren, eta horrek eskulana merkatzen lagundu zuen.
- Berrikuntza teknikoak (lurrun-makina eta abar) erabakigarriak izan ziren produkzioa handitzeko. Haiei esker, gehiago fabrikatu zen denbora eta langile gutxiago erabiliz.
- Kapitala: behar-beharrezkoa zen, inbertsio handia egin behar baitzen fabrika bat eratzeke eta makinak erosteko.

Faktore horiek guztiak batera gertatzeak Industria Iraultzarako eta kapitalismoa sendotzeko bidea ekarri zuen. Horrek guztiak gizarte-klaseen arteko desberdintasun handia ekarri zuen berekin, batez ere enpresaburuen eta proletarioen artean. Desberdintasun haiek izan ziren langile-mugimenduaren eta XIX. mendearen amaierako iraultza sozialen haztegia. Esan daiteke filosofia marxista faktore baldintzatzaile horien aginduetara idatzi zela.

7.

Zaratuaren mezua "eguerdiko filosofia" deituriko aldiari idatzi zuen Nietzschek. Aldi hori da haren pentsamenduaren une gorena eta argiena; eguerdia, alegia. *Honela mintzatu zen Zaratu* (1883-1885) haren lanik oinarritzakoa da, poetikoa eta profetikoa. Biblia Berria izatea du helburu. Zaratuak ebanjelio berri bat ematen du aditzera, moral berri bat. Obrak hiru zati ditu:

Lehenengoan, Jainkoaren heriotza eta Supergizakia deskribatzen ditu. Bigarrenean, botere-nahia. Hirugarrenean, etengabeko itzulera.

Honela mintzatu zen Zaratu obran, hiru transformaziori buruz hitz egiten digu, hobeto uler dezagun zer esan nahi duen "Jainkoaren heriotzak". Sinbolo hauek erabili zituen Nietzschek:

- a) Gamelua. Gizaki sinestunaren sinboloa da. Gamelua basamortuko animalia da, eta zama handiak garraiatzen ditu. Obedientzia eta sakrifizioarako ahalmena irudikatzen ditu. Belaunikatu egiten da aginduen ohol zaharrak edo dekalogoak kargatu diezazkieten, eta ezerezaren basamortuan dabil. "Zuk egin beharra duzu" aginduaren mende dago.
- b) Lehoia. Erligioaren balioak suntsitzen dituen gizakiaren sinboloa da. Badaki jainkoa hil dela. Jainkoaren heriotzak uzten duen hutsuneari aurre egiteko behar diren indarra eta kemena irudikatzen ditu. Oihaneko erregea da, eta egin behararen kontra oldartzen da. Gameluaren "zuk egin beharra duzu" haren aurrean, "nahi dut" burujabea ezartzen du.
- c) Haurra. Sormenaren eta inozentziaren sinboloa da. Supergizakiaren espiritua da, balio berriak ezartzen dituen balio zaharrek erortzean uzten duten hutsunea betetzeko. Balio berriak sortzeko gaitasun ludikoa irudikatzen du haurrak.



8.

XX. mendearen lehen erdiaren ezaugarri nagusia gerrak izan ziren: pixka bat lehenago pentsatu ezineko magnitudea izan zuten. Populazioaren arlo eta sektore guztiei eragin zieten, eta lehenago inoiz ez bezala. Hauek izan ziren gertaera aipagarrienak:

- Gerra Handia edo Lehen Mundu Gerra (1914 - 1918).
- 1929ko krak ekonomikoa.
- Ideologia totalitarioak (nazismoa eta faxismoa). Hannah Arendt-ek esaten duen moduan: "Totalitarismoaren helburua ez da gizakiak despotikoki menderatzea, baizik eta gizakiak beharrezkoak ez diren ordena bat sortzea".
- Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) eta haren ondorioak: Gerra Hotza eta izu nuklearraren oreka.

Premisa horietatik abiatuta, ez da harritzekoa ezkortasuna, larritasun-sentimendua, bizitzaren absurdotasunari buruzko sentimendua zabaltzea.



OINARRIZKO ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Ondoren, probak zuzentzeko orientabide batzuk ematen dira. Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du, hiru faktoreren arabera zatituta: globaltasuna (1,5), koherentzia (0,75), sendotasuna (0,25).

- 1. Globaltasuna:** materiaren egitura, globaltasun kontzeptual eta historikoa — gero eta dimentsio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak— izango da zuzenketaren oinarrizko gidaria. Hala, erantzuna zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan, hainbat handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:
 - Erantzunean ageri den edukia (esaten dena) baino ez da hartuko kontuan (esaten ez dena kontuan hartu gabe). Beraz, puntuak metatu baino ez dira egiten, eta inoiz ez kendu.
 - Sakontasuna da galdetzen den filosofiaren edota garaiaren ideia nagusietara gero eta gehiago hurbiltzea.
 - Zabaltasuna da ideia edota gorabehera historiko asko sartzea.
- 2. Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikoki ordenatzen dira lehentasun baten arabera —epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...—. Betiere, erantzuna ibilbide ulergarri batean barrena garatzen da.
- 3. Sendotasuna:** kontraesanik ez izatea —baieztapen bat egitea eta gero haren kontrakoa edo harekin batere erlaziorik ez duen zerbait eranstea—, filosofiak edo aldi historikoak ez nahastea eta abar.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	3.7
2	4.5
3	5.8, 5.9
4	6.2
5	7.7
6	8.1
7	9.5.
8	10.1